

ARABA ESIKO EGUNEKO OSPITALE MEDIKO ETA ONKO-HEMATOLOGIKO BERRIA ARRETA SANITARIOAREN KALITATEA HOBETZEN DUEN ERREALITATEA DA

Iñigo Urkullu lehendakariak azpiegitura berria bisitatu du gaur. Izan ere, 2900 m²-tik gorako azalera dauka, aurrekoaren halako hiru, eta instalaziorik puntakoenak eskaintzen ditu Eusko Jaurlaritzak egin duen 5 milioi euroko inbertsioari esker

Eraikin berean, bihar martxan jarriko diren zerbitzu ospitalario-medikoak eta abuztuan hasi ziren onko-hematologikoak eskainiko dira. Horrez gain, Errehabilitazio Kardiakorako Unitate modernoa ere egongo da bertan

Iñigo Urkullu lehendakariak gaur goizean bisitatu du **hainbat prestazio eta zerbitzuren bidez** paziente arabarren arreta hobetuko duen Araba Unibertsitate Ospitaleko Eguneko Ospitale Mediko eta Onko-hematologiko berria.

Jon Darpon Osasun sailburuarekin batera, Jon Etxeberria Osakidetzako zuzendari nagusia eta Jesus Larrañaga Araba Unibertsitate Ospitaleko gerentea egon dira. Lehendakariak hauxe nabarmendu du bisitaldian: **“Eguneko Ospitale hau martxan jartzean beste aurrerapauso bat eman dugu Osakidetzak arabar guztiei eskaintzen dien zerbitzuaren hobekuntzan”**.

Eguneko Ospitale berria Txagorritxu eraikineko beheko solairuan dago kokatuta, lehen kanpo kontsultetarako eta laborategietarako erabilitako orubean, hain zuzen ere. Beraz, antzinako Eguneko Ospitaleko edukieraren halako hirukoa da, **Araba Unibertsitate Ospitaleko Plan Zuzentzailearen barruan kokatutako 5.308.007 €-ko inbertsioa egin eta gero**.

Lehendakariaren esanetan, jarraipena izango duen apustua da, **“hurrengo urteetan inbertitzen jarraituko dugulako, Arabako lurraldeari arabarrek nahi eta merezi duten erreferentziako ospitalea eman ahal izateko”**.

Iñigo Urkulluk nabarmendu duenez, ospitale berriak **“miaketarako eta tratamendurako teknikarik puntakoenak ditu, eta, horren ondorioz, pazienteen eta profesional sanitarioen segurtasuna, eraginkortasuna eta erosotasuna areagotuko dira”**.

Aldi berean, azpimarratu egin nahi izan du **Araba Unibertsitate Ospitalea Osakidetzako sareko aitzindaria ere izango dela, zain barneko kimioterapia segurua emango duelako sistema informatikoaren bidez**. Izan ere, tratamenduei bide emango die, nazioartean onartutako *“medikazioa segurtasunez emateko bost printzipioak”* betetzen direnean (sendagai, dosi, paziente, zain eta ordu egokiak).

Iaz, Eguneko Ospitale Medikoak eta Onko-hematologikoak **hilean 1.770 lagun artatu zituzten batez beste**. Sarbide bera dute Txagorritxuko kanpo kontsultetako antzinako sarreratik, eta, gainera, onarpena zein harrera ere partekatzen dituzte, erabiltzaileen erosotasuna eta lasaitasuna bermatzeko diseinatutako eremu horretan.

OSPITALE MEDIKOA

Bihartik abian egongo den Eguneko Ospitale Medikoa Onko-hematologikoaren antzera dago egituratuta: irakurtzeko argia daukaten azken belaunaldiko ohatila-besaulkidun **banakako 22 box**; teknika eta tratamendu berezietarako **banakako 4 logela**; **medikuntzako eta erizaintzako 10 kontsulta** (Minaren Unitateko 3, Alergologiako 2 eta zenbait espezialitatetarako erabilera anitzeko 5); **erizaintzako 2 kontrol**; **laguntza asistentzialerako eremuak**; eta bilera gela bat.

Eguneko Ospitale Medikoan, **paziente anbulatorioak** artatzen dituzte ospitaleko hainbat zerbitzutako tratamenduak behar dituztenean: **Erreumatologia, Digestiboa, Neurologia, Urologia, Barne Medikuntza, Neumologia, Endokrinologia...** Halaber, Minaren Unitateak ere bi kontsulta mediko eta bereizmen handirako erizaintzako kontsulta bat izango ditu, baita ekografia bidezko infiltraziorako bi areto eta kontrol erradioskopikoa behar duten tekniketarako gela “kirofanizatua” ere. Horrez gain, pazienteen segurtasuna bermatu nahian, orain arte kanpo kontsultetan eta ospitalizazioan egiten ziren teknika diagnostiko eta terapeutikoen bi kontsulta ere egongo dira **Alergologiako Unitatean**.

OSPITALE ONKO-HEMATOLOGIKOA

Bestetik, Eguneko Ospitale Onko-hematologikoak Onkologia Medikoko eta Onko-hematologiako zerbitzuen kontsulta behar duten pazienteei emango die arreta, baita prozedura diagnostiko eta terapeutiko onko-hematologiko inbaditzaileen edo zain barneko tratamendu kimioterapikoen premia dutenei ere.

Era berean, honako hauxe ere badu abuztutik abian dagoen ospitale horrek: irakurtzeko argia daukaten azken belaunaldiko ohatila-besaulkidun **banakako 23 box**; teknika eta prozedura inbaditzaileetarako **banakako 6 logela**; **12 kontsulta mediko** (Onkologiako 9 eta Hematologiako 3); **erizaintzako 2 kontsulta**; eta bilera gela bat.

Eremu honetan, **Farmazia Onkologikoa** ere egongo da kokatuta, eta informatizatutako fluxu laminar bertikaleko bi kanpai izango ditu, pazienteei nahiz profesionaleri begira tratamenduak modu seguruan prestatzeko. Halaber, bi kontsulta farmakologiko ere egongo dira, sendagai ospitalario ambulatorioak banatzeko. Eremu berean, **Araba Unibertsitate Ospitaleko Zain Barneko Terapiarako Taldea** ere badago. Azken belaunaldiko tekniken bidez, paziente onko-hematologikoei jartzen dizkie tratamendurako beharrezkoak diren zain-bideak, eta geroko zainketarako aholkuak ere ematen dizkie.

ERREHABILITAZIO KARDIAKORAKO UNITATEA

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak **Araba ESiko Errehabilitazio Kardiakorako Unitate berria** ere bisitatu du, Eguneko Ospitalearen ondoan kokatuta dago-eta. Puntako unitate horrek teknologia aurreratuena eskaintzen die bihotzeko gaixotasunak dituzten **paziente arabarrei, arretaren kalitatea askoz hobea izan dadin**. Ezin da ahaztu bihotz-hodietako gaixotasunak gizonen bigarren heriotza-arrazoia direla minbiziaren ostean; eta, emakumeen artean, ordea, lehenengoa. Hori dela eta, unitate berri hori oso garrantzitsua da, **errehabilitazioa funtsezkoa delako infartuaren eta bihotz-gutxiegitasunaren ostean**.

Eremua aurreko gimnasioaren **bikoitza** denez, ergonometro gehiago daude, eta, horren ondorioz, **artatutako pazienteen kopurua ere bikoiztu ahal izango da**. Instalazio berri horien monitorizazioa azken belaunaldikoa denez, 12 paziente ere kontrolatu ahal izango dira aldi berean. Ekipamendu berriak, gainera, pazienteen jardueraren zenbait parametro ikusteko aukera ere emango du gimnasioan jarritako 2 monitore handitan. Bestetik, instalazio berriek **medikuntzako eta erizaintzako 3 kontsulta ere** izango dituzte, pazienteen berehalako arreta eta komunikazioa bermatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 17an